



## **2. UNITATEA: ENPRESA MOTAK + ZERGAK**

**2.1. Sarrera**

**2.2. Enpresaren forma juridikoak**

**2.3. Enpresa indibiduala**

**2.4. Enpresa Sozietatea**

**2.4.1. Merkataritza Sozietatea**

**2.4.2. Sozietate Bereziak - Gizarte Intereseko Sozietatea**

**2.5. Fiskalitatea - zergak**

**2.6. Ariketak**

## 2.1.SARRERA

Enpresa mota asko daude eta zenbait sailkapen egin dezakegu:

- **Neurriaren arabera:** handiak (250 langile baino gehiago), ertainak (50-249), txikiak (10-49) eta mikroenpresak (0-9). Urteko fakturazioa ere kontuan hartzen da.
- **Jardueraren arabera:** lehen, bigarren edo hirugarren sektorekoa.
- **Eremu geografikoaren arabera:** tokikoak, eskualdekoak, nazionalak, nazioarteko enpresa eta multinazionalak.
- **Etekin helburuaren arabera:** irabazi-asmorik dituzten enpresak eta ez dituztenak (helburu sozialak - Gobernu kanpoko erakundeak..).
- **Kapitalaren jabetzaren arabera:** pribatua, publikoa eta mistoa.
- **Forma juridikoaren arabera:** banako enpresa eta sozietate edo bazkide enpresa.

Gai honetan, **FORMA JURIDIKOAREN ARABERA** sailkatutako enpresak ikasiko ditugu. Hauek hurrengo ezaugarriak dituzte:

- **Enpresaren ondarea - kapitala:** Bazkide-kopurua, kapital soziala.
  - **Ondarearen kudeaketa:** bazkideen arteko erlazioaren bidez gauzatzen da kudeaketa hau. Besteak beste, gai hauek jorratzen dira: Kapitalaren zabalkundea edo murrizketa, enpresaren desagertzea edo beste enpresa batekin elkartzea. sortu diren mozkinen helburua erabakitzea.
- **Erantzukizuna:** mugatua edo mugagabea.
  - **Erantzukizun mugagabea duten sozietateak** edo pertsonen sozietateak edo sozietate pertsonalistak. Horietan enpresaren ekintzen erantzukizuna *pertsonala* da eta bazkideek ondare pertsonal osoarekin erantzuten dezakete. Une jakin batean eta etorkizunean izan dezaketen ondarearekin (baita ezkontidearen ondarearekin ere).
  - **Erantzukizun mugatua duten elkarteak** edo kapital-sozietateak edo sozietate kapitalistak.  
Enpresaren ekintzen erantzukizuna enpresarena da soilik. Horretarako enpresak bere ondarearekin erantzun dezake soilik. Horrela, bazkideen erantzukizuna elkarteari egindako ekarpenetara mugatzen da.
- **Fiskalitatea:** PFEZ (pertsona fisikoen errenta zerga) eta SZ (sozietateen gaineko zerga)
- **Enpresa osatzeko bete behar diren legezko tramiteak:** merkataritza legedia, erregistroak.
- **Enpresaren administrazio antolaketa:**
  - Organo pertsonalak eta kolegiatuak: osaera eta kompetentziak.
  - Bazkideen eskubide politikoak eta ekonomikoak.
    - **Eskubide ekonomikoak:**
      - Enpresa likidatzen bada inbertitu den kapitala eta, izango balira, metaturiko erreserben parte proportzionala berreskuratzea.
      - Enpresak sortzen dituen mozkin osoaren parte proportzionala kobratzea.
    - **Eskubide politikoak:**
      - Batzarretara joateko eskubidea, hitz egiteko eta bozkatzeko ahalmenarekin.
      - Administratzaile orokorrak elkartearentzat interesgarriak diren gaien berri ematen du.

## 2.2. ENPRESAREN FORMA JURIDIKOAK

- **Enpresa Indibiduala**
  - ENPRESA INDIBIDUALA
  - SOZINETATE ZIBIL PRIBATUA
  
- **Enpresa Sozietatea**
  - SOZINETATE ZIBIL PUBLIKOA
  - MERKATARITZA SOZINETATEA
    - Pertsonalista
      - Komanditario Sinplea
    - Kapitalista
      - Komanditarioa akzioengatik
      - Erantzukizun Mugatukoa
      - Sozietate Anonimoa
  - SOZINETATE BEREZIAK - GIZARTE INTERESEKO SOZINETATEA
    - Sozietate Laborala
  
    - Kooperatiba

## 2.3. ENPRESA INDIBIDUALA

Enpresaren jabea pertsona bat da, **nortasun fisikoa** du. Ez da derrigorrezkoa Merkataritza Erregistroan alta ematea.

- **Enpresaburu Indibiduala (autonomia):**
  - **Definizioa:** Merkataritza, industria edo beste jarduera profesional bat egiten duen pertsona fisiko bat da.
  - **Enpresaburu izateko baldintzak**
    - Adinez nagusia izatea.
    - Ondasun propioak erabiltzeko baliabide guztiak izatea.
    - Bazkide kopurua= 1
  - **Erantzukizuna:** Jabeak kontrol handiagoa eraman behar du enpresaren gainean, berak zuzentzen baitu enpresaren kudeaketa eta izandako zorrak kitatzeaz bera arduratzen baita; horretarako, behar izanez gero, bere ondare guztia jarri behar du, hau da, erantzukizun mugagabea du.
  - **Gutxieneko kapitala:** Ez dago.
  - **Enpresaren izena:** Titularraren izen bera izan behar du.
  - **Fiskalitatea:** PFEZ ordaindu behar du.

- **Sozietate Zibil Pribatua**
  - **Definizioa:** Kontratu batean oinarritzen da. Kontratu horren baitan bi pertsonak edo gehiagok dirua, ondasunak edo industria komunean jartzen adosten dute, honela lortutako onurak elkarren artean banatzeko asmoz. Pertsona batez baino gehiagoz osatutako sozietateak diren arren, banako enpresatzat jotzen dira, nortasun fisikoa dutelako eta ez juridikoa.
  - **Bazkide kopurua:** 2 edo gehiago.
  - **Erantzukizuna:** Mugagabea.
  - **Gutxieneko kapitala:** Ez dago.
  - **Enpresaren izena:** Bazkideek erabakitako edozein.
  - **Fiskalitatea:** PFEZ ordaindu behar du.

## 2.4. ENPRESA SOZIETATEA

Enpresak **nortasun juridikoa** du. Nortasun juridiko hau Merkataritza Erregistroan izena ematearekin batera jaiotzen da eta sortutako erakunde berri horri eskubide eta betebeharren titularra izateko eskubidea ematen zaio.

- **Sozietate Zibil Publikoa**
  - **Merkataritza Erregistroan** eman behar du izena.
  - Sozietate Zibil Pribatuaren helburu eta ezaugarri berak ditu, baina bazkideen arteko paktuak publikoak dira eta notario aurrean sinatuko den eskritura publikoaren bidez sortzen dira (adib: ekonomialari bat eta abokatu bat elkartu dira bulego bat zabaltzeko, bakoitzak bere kasa jardungo du, nahiz eta batzutan bezero berdinak eduki. Eskritura publiko baten bidez formalizatzen dute eta S.Z.Pribatutik Publikora pasatzen dute).
  - **Bazkide kopurua**= 2 edo gehiago.
  - **Erantzukizuna:** Mugagabea.
  - **Gutxieneko kapitala:** Ez dago.
  - **Enpresaren izena:** Bazkideek erabakitako edozein.
  - **Fiskalitatea:** PFEZ ordaindu behar du.
- **Merkataritza Sozietatea** (S.C edo S.Com, S.A., S.L.,...)
  - Merkataritza Erregistroan eman behar du izena.
  - Bazkide hauek ere fondo bat jarri dute komunean eta onuren banaketan hartzen dute parte.
- **Sozietate Bereziak - Gizarte intereseko Sozietatea** (S.A.L, S.L. , S.Koop)
  - Ez da onura lortzea bilatzen duen enpresa bat. Kideen behar komuna asetzea da helburu.

## 2.4.1. MERKATARITZA SOZIETATEA

Merkataritza Erregistroan eman behar du izena. Bazkide hauek ere fondo bat jarri dute komunean eta onuren banaketan hartzen dute parte.

### Sozietate komanditarioa

Sozietate mota hau gaur egun ez da oso irudi juridiko ohikoa. Bi eratako bazkideek osatzen dute sozietate-mota hau: bazkide kolektiboek eta bazkide komanditarioek.

- Bazkide **kolektiboek** sozietatearen kudeaketan parte hartzen dute, lana nahiz dirua jartzen dute sozietate kolektiboetan bezala. Bazkide hauen erantzukizuna **mugagabea** da.
- Bazkide **komanditarioak kapitalistak** izaten dira, hau da, kapital-ekarpena egiten diote sozietateari eta haien helburu bakarra dibidenduak lortzea da. Ez dute sozietatean lanik egiten eta kudeaketan ere ez dute parte hartzen. Haien erantzukizuna egindako kapital-ekarpenari **mugatua** da.

Bi motatako sozietate komanditarioak daude:

- **Sozietate komanditario sinplea.** Orain arte aztertutakoa da. Gutxienez bi bazkide behar dira eta ez du kapital sozialari dagokion gutxienerako mugarik. Bazkideak kolektiboak nahiz komanditarioak izan daitezke. Izena: "bazkideen izenak/abizenak y compañía. S. Com"
- **Akzioen bidezko sozietate komanditarioa.** Aurrekoaren antzekoa da, baina bazkide komanditarioek jarritako kapitala akzioetan jasotzen da. Gutxienez 3 bazkide eta 60.101,21 euroko kapital soziala behar dira sozietate-mota hau sortzeko; kapitalaren%25ek sozietatea eratzeke unerako ordainduta egon beharko du (izen objektiboa / sozietate anonimo baten bezala).

### Erantzukizun Mugatukoa (Sociedad Limitada: S.L.)

Sozietate anonimoekin batera, gaur egun gehien zabaldu den irudi juridikoa da hau. Sozietate-irudi malgua dela esan daiteke, sorkuntzarako eman beharreko urratsak asko erraztu baitira azken urteetan.

Bazkide batek edo gehiagok era dezakete. 3.005,06 eurokoa da sozietateak izan behar duen gutxienerako kapitala. Enpresa sortzeko unean erabat harpidetuta eta ordaindurik izango da kapital soziala. "**Kapital-partizipazio**" izeneko titulu zatietan eta metagarrietan banatzen da. Partizipazio horien jabetza ezin zaie sozietatekoak ez diren pertsoneri edonori igorri. Estatutuek besterik adierazi ezean, senar-emazteei, gurasoei, seme-alabei edo beste bazkide bati soilik eman dakizkieke.

Sozietatea Merkataritza-erregistroan gordeko den eskritura publiko bidez eratzen da. Sozietatearen **gobernu-organoak** honako hauek dira:

- **Bazkideen Batzar Nagusia:** bazkideak 15 baino gehiago direnean. Bazkide guztiek osatzen dute eta organo nagusia da.

- **Administratzaile bat (edo batzuk),** bazkidea ez den edozein izan daiteke. Ez dago karguan egoteko gehienezko eperik, iraupena sortze-eskrituran ezarritakoa izango da. Sozietatearen izena objektiboa edo subjektiboa izan daiteke, baina beti agertuko da "Erantzukizun

BTX 2 – Enpresa \_\_\_\_\_ 2. unitatea: Enpresa motak \_\_\_\_\_

Mugatuko Sozietatea" (EMS) edo "Sozietate Mugatua" (SM) "Sociedad de Responsabilidad Limitada" (SRL) edo "Sociedad Limitada" (SL) gaztelaniaz—.

Erantzukizun mugatuko sozietateek Sozietateen gaineko Zergaren arabera ordaintzen dituzte haien zergak

## **Sozietate Anonimoa (S.A.)**

Gutxieneko kapitala 60.101,21 eurokoa da eta askatasunez eskualda daitezkeen titulueta banatuta dago. Titulu horiei **akzio** deritze. Kapitalaren jabetza inolako oztoporik gabe alda daiteke. Bazkide bakoitzak akzioak nahi duenean sal ditzake aurretik ezer adierazi gabe eta gainerako bazkideen baimenik gabe.

Akzioek duten balioaz baino ez dute erantzuten bazkideek, alegia, egindako ekarpen horretara mugatuko da bazkideen erantzukizuna.

Sozietate-mota hau eratzeko unean kapital sozial osoak harpidetuta egon beharko du, eta gutxienez kapital horren %25ak inbertituta egon beharko du. Ekarpinak dirutan edo diruz balora daitezkeen ondasunen bidez egin daitezke. Sozietatea Merkataritza-erregistroan gordeko den eskritura publiko bidez eratzen da. Enpresaren izenean "Sozietate Anonimoa"(SA) esaerak agertu behar du.

**Gobernu-organo** hauek izaten dira sozietate anonimoetan:

- **Akziodunen Batzar Nagusia.** Eztabaidatu eta erabakiak gehiengoz hartzeko bazkide guztiek osatzen duten biltzarra da. Akordioak gehiengo sinpleaz hartzen dira akzio bat boto bat printzipioari jarraituz.
- **Administrazio-kontseilua.** Kudeaketa eta ordezkapen-zereginak betetzen ditu.
- **Kontu-ikuskariak.** Kontabilitatea berrikusteko barne-organoa da. Bazkideen betebeharrak bakarrik bakoitzaren akzioei dagokien ordainketa egitea da. Beren oinarrizko eskubideak, berriz, honako hauek dira:
  - Enpresaren irabazietan parte hartzea (dibidenduak).
  - Enpresa ixten den kasuetan, enpresaren ondarean parte hartzea.
  - Kapital-zabalkuntzaren kasuan, lehentasunezko harpidetza.
  - Akziodunen Batzar Nagusian parte hartzea, informazioa eskatzea eta boto-eskubidea erabiltzea.

Sozietate anonimoen irabaziek Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar dute.

## 2.4.2. SOZIETATE BEREZIAK - GIZARTE INTERESEKO SOZIETATEA

### Sozietate Laborala edo Lan Sozietatea (S.L.L. , S.A.L.)

Kapitalaren zati handiena langileen esku dagoen Sozietate Anonimoak edo Erantzukizun Mugatuko Sozietateak dira.

Bi motatako bazkideak izaten dira sozietate hauetan: batetik, bazkide langileak, eta bestetik, langile ez diren bazkideak edo bazkide kapitalistak; akzio edo partaidetzen jabe direnak eta enpresan lan egiten ez dutenak. Bazkide **langileek kapitalaren %51 edukiko dute, gutxienez.**

Aipatu beharrekoa da enpresa-mota hauetan ere soldatapeko langileak izan daitezkeela.

Sozietatearen izenean "Lan-sozietate Anonimoa" edo "Erantzukizun Mugatuko Lan-sozietatea" esaerak agertu beharko du.

Erreserba Fondo berezia eratzera behartuta daude. Erreserba hori ekitaldi bakoitzeko bazkideen artean banatu ezin den irabazi garbien %10ez osatuta egongo da.

Akzioak nominatiboak dira. Akzioen jabetza-aldakuntza ez da librea. Saltzen jartzen diren akzioen kasuan, zenbait lehentasun bete behar dira: bazkideak ez diren langileak; bazkide langileak, bazkide kapitalistak; eta, bukatzeko, enpresa kanpoko pertsonak.

### Kooperatiba (S. koop.)

Irudi honen eta gainerako irudien arteko aldeak handiak dira. Lehenengoz, haren xedea ez da lukratiboa (ezarritako kapitalaren gaineko irabaziak maximitzea); aitzitik, haren xedea da bazkideen beharrak asetzea eta komunitatea laguntzea. Xede hori lortzeko merkataritza-jarduera edo bestelako bat beteko dute.

Kooperatiben kudeaketa eta zuzendaritza kooperatibaren eta bazkideen esku dago. Sozietatearen izena "Kooperatiba Sozietatea" esaeraz osatuko da.

Kooperatiba-sozietateen **ezaugarri nagusiak** honako hauek dira:

Kapitala bazkideen ezarpenez osaturik dago; ez da onartzen bazkide kapitalistarik. Ezarpenak aldaezinak, finkoak, eta mugatuak dira. Kooperatiben **kapitala aldakorra** da, elkarrearen bizitzan zehar aldatzen da estatutuak (kooperatiben barne legedia) aldatu gabe, elkartean bazkide berriak sartzen direnean hazten da, eta bazkideak ateratzen direnean murrizten da.

Bazkideek egiten dituzten ezarpenek urteroko ordainketa bat jasotzen dute diruaren interes-tasa ofizialaren arabera; ez dute jasotzen ordainketa aldakorrik izaten diren mozkinen arabera.

Bazkide izatearen **transmisioa ez da librea**. Bazkide batek utz dezake sozietatea baina ezin dio beste inori saldu bere partaidetza. Kooperatibaren kontseilu errektoreak aukeratzen ditu bazkide berriak.

Ez da onartzen, printzipioz behintzat, langile ez bazkidearen irudirik, nahiz eta praktikan izaten diren langile ez bazkideak; inoiz ez, ordea, langile-kopuru osoaren%15 baino gehiago.

Bazkideen batzarrean eskubide politikoak gehiengoz hartzen dira, pertsona bat boto bat printzipioari jarraituz; bazkide bakoitzak duen kapital-partaidetza kontuan izan gabe, alegia.

Sozietate kooperatiboek Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen dute; fiskalki babestuta dauden kooperatibek tipo murriztuaz, ordea (%20 ingurukoa).

Estatutuek kontrakoa ez badiote behintzat, bazkideen erantzukizuna mugatua da. Sozietate kooperatiboek eskritura publikoa egin behar dute sortzeko, eta eskritura publikoa Kooperatiben erregistroan gordetzen da.

Honela **sailkatzen dira kooperatibak:**

- ***Lehenengo mailakoak:*** bazkideak pertsona fisiko edo juridikoak dira (gutxienez, 5 bazkide). Adibidez: Orkli S.Coop., Trizar S.Coop., Fagor S.Coop....
- ***Bigarren mailakoak:*** bi kooperatiba edo gehiagoz osatuta badaude (gutxienez, 2bazkide). Adibidez: MCC (Mondragon Corporacion Cooperativa).

Hainbat kooperatiba-mota daude: lan elkartuko kooperatibak, etxebizitzakoak, nekazaritzakoak, irakaskuntzakoak, itsasokoak, besteak beste.

**Sozietateko organoak** honako hauek dira:

- ***Batzar Nagusia*** Bazkide guztiek osatzen dute eta bakoitzaren ikuspuntuaren adierazpen-organoa goren da Bazkide bakoitzak boto bat dauka eta bertan hartutako erabakiek bazkide guztiak behartzen dituzte.
- ***Kontseilu errektorea.*** Sozietatearen gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoa da (gutxienez, 3 kide) Bazkideak bakarrik izan daitezke kontseilariak.
- ***Ikuskariak.*** Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztu baino lehen, urteko kontuen berri ematen dute (gehienez, 3)
- ***Errekurtso-batzordea.*** Kontseiluak bazkideei ezarritako zigorren aurkako errekurtsoak bideratu eta ebazten ditu (gutxienez, 3 kide). Bazkideen artean aukeratzen dira kide hauek.
- ***Kontseilu soziala.*** *Organo* honen eginkizunak bazkideei eta elkarteari buruzko politikarekin eta politika sozialarekin daude lotuta. Era berean, Kontseilu Errektoreak eskuordetzen dizkion erabakiak ere hartu ahal izango ditu.



## 2.5. ZERGAK ETA ENPRESEK ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK

**Tributuen Lege Orokorra:** Zergei buruzko arau nagusia TRIBUTUEN LEGE OROKORRA da. Bertan daude definituta zerga-kontzeptu nagusiak, zerga-erakundeen egitura eta funtzionamendua nolako den ezartzen du, baita zein den tributua kudeatzeko prozedura ere.

- **Zerga-zuzenbidea:** Estatuak diru-sarrerak behar ditu, gastu publikoak, Estatuko Aurrekontu Publikoetan jasotakoak, estaltzeko, eta arau batzuk onartzen ditu horretarako: ZERGA-ZUZENBIDEA osatzen duten arauak.

### 2.5.1. Tributua eta tributua-motak

- **TRIBUTUAK:** Estatuak diru-sarrera gehienak hauen bidez lortzen ditu. Tributua nahitaez ordaindu behar dituzte herritarrek. Bi helburu nagusi dituzte:
  - o Gastuak finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzea.
  - o Herrialdeko jardura ekonomikoa kontrolatzea.
- **TRIBUTU MOTAK: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.**
  - o **TASAK:** Erakunde publiko bati emandako diru-prestazioak dira, hark erabiltzaileari onura zuzena dakarkion zerbitzu publiko edo jardura bat ematearen ordainetan. Adib: Erakusketa publiko baterako sarrera, Unibertsitate Publiko batean ikasteko ordaindu behar den matrikula...
  - o **KONTRIBUZIO BEREZIAK:** Obra publikoei edo zerbitzu publikoei esker ondasunek izandako balio-handitzea zergapetzen du. Onura ez du zerga ordaintzen duen horrek soilik jasotzen, gizarteak oro har baizik. Adib: Urbanizazio-lanak
  - o **ZERGAK:** Administrazio publikoek ordainetan zuzenean ezer eman gabe zergapekoei eskatzen dizkieten ordainketak dira, diru horrek helburu zuzenik izan gabe. Adib: PFEZ, SZ...

### 2.5.2. Zerga motak eta klasifikazioa

- o **ZERGA ZUZENAK:** Pertsonak edo enpresek zuzenean zergapetzen dituzten zergak, etekina lortu dutelako edo bere jabetzako ondasun bat erabili dutelako.
  - o **ZEHARKAKO ZERGAK:** Pertsonen ondasunen edo zerbitzuen kontsumoa zergapetzen dute, bai eta ondasunen eta eskubideen eskualdatzeak ere.
- Klasifikazioa funtzionamenduaren arabera
- o **ZERGA PROGRESIBOAK:** Zerga-oinarria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da zerga-tasa (Adib, PFEZ).
  - o **ZERGA ERREGRESIBOAK:** Zerga-oinarria zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da zerga-tasa.
  - o **ZERGA PROPORZIONALAK:** Zerga-oinarria edozein izanda ere, zerga-tasa bera da (Adib, BEZa).
- \*\*Zerga-oinarria: Zerga-aldian lortutako errenta izango da, eta errendimendu guztiek eta ondare-gehikuntza eta ondare-murrizpen guztien batura izango da.

BTX 2 – Enpresa \_\_\_\_\_ 2. unitatea: Enpresa motak \_\_\_\_\_

## **ZERGA ZUZENAK:**

**PFEZ (pertsona fisikoen errenta gaineko zerga):** Tributu pertsonala, zuzena eta progresiboa. Biltzailea: EAEn, Ekonomia Itunean edo Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoari jarraituz, foru-aldundiek biltzen dute, hau da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

- o Zergapeko egitatea: Pertsona fisikoen errenta zergapetzen du, hau da ekoizpen-faktoreen (lana, kapitala...) errendimendu guztiak zergapetzen ditu.
- o Atalak:
  - § Lanaren irabaziak
  - § Kapital higiezinaren errendimenduak
  - § Kapital higigarriaren errendimenduak
  - § Jarduera ekonomikoen errendimenduak
  - § Ondare-irabaziak eta -galerak

**SZ (sozietateen zerga):** Tributu pertsonala eta zuzena da eta sozietateen eta beste erakunde juridiko batzuen errenta zergapetzen du. Foru Aldundiak - Ogasunak biltzen du.

- o Zergapeko egitatea: subjektu pasiboak lortutako etekinak, hots, enpresak lortutakoak.
- o Enpresek nortasun juridikoa izan behar dute eta ez dute egon behar pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren jarduera ekonomikoak zergapetzeko erregimenean.
- o Zerga-tasa: Zerga-oinarriari ezartzen zaion ehunekoa. % 25ekoa da, oro har, Espainian, eta gaur egun, % 24koa EAEn, baina subjektu pasiboa zer motatakoa den, badira beste zerga-tasa batzuk ere. Adibidez, EAEn, enpresa txikiek zerga-tasa berezia dute: % 20koa.

**EJZ (ekonomia jardueren gaineko zerga):** Zerga zuzena eta erreala da. Biltzaileak: UDALA

- o Zergapeko egitatea: Enpresa-jarduera, jarduera profesionala zergapetzen ditu.
- o Zerga-tasa: Gutxieneko TARIFA batzuk izaten ditu ezarrita, eta horiei KOEFIZIENTE bat ezartzen zaie (udalak erabakitzen du zenbatekoa izango den), eta INDIZE batzuk aplikatzen zaizkio dagokion zonaren maila kontuan hartuta, eta HAZTATZE-INDIZE batzuk jardueraren bolumena kontuan hartuta. Salbuetsita daude 1 milioi eurotik beheragoko negozio-zifra duten subjektu pasiboak edo enpresak..

## **ZEHARKAKO ZERGA:**

**BEZ (Balio Erantsiaren zerga).** Zeharkakoa da, kontsumoaren gainekoa.

- o Zergapeko Egitatea: BEZ-a ez da eragiketa guztietan ordaintzen, batzuk salbuetsita daudelarik (irakaskuntza, osasungintza...). Eragiketa hauek zergapetzen ditu:
  - § Enpresaburuek eta profesionalak emandako ondasunak eta zerbitzuek.
  - § Batasunaren barneko ondasun-erosteak.
  - § Enpresaburuek, profesionalak eta partikularrek egindako ondasun-inportazioak.

---

Jasanarazitako BEZa – Jasandako BEZa = ORDAINDU edo JASAN beharreko BEZa

(saltzean)                      (erostean)                      Ogasunari ordaindu                      Ogasunak ordaindu  
BTX 2 – Enpresa \_\_\_\_\_ 2. unitatea: Enpresa motak \_\_\_\_\_

- o Zerga-tasa: Produktu guztientzat ez da bera:
  - § TASA OSO MURRIZTUA, % 4koa. Premiazko ondasunei ezartzen zaie: barazkiei, esnari, ogiari, fruituei...
  - § TASA MURRIZTUA, % 10ekoa. Elikagaiei oro har, bidaiarien garraioari, etxebizitzari eta liburutegien, artxiboen, dokumentazio-zentroen, museoen, arte-galerien... eta abarren sarrerari.
  - § TASA OROKORRA, % 21ekoa. Gainerako ondasunei eta zerbitzuei ezartzen zaie. Adibidez: antzerkietarako, ikuskizunetarako, kontzertuetarako sarrerei eta zoologiko, zine-areto eta diskotekatarako sarrerei; telefonia mugikorreko zerbitzuei; ile-apaindegien zerbitzuei, tabakoari eta edari alkoholdunei.

Zerga-oinarria + BEZaren zenbatekoa = **Eragiketaren guztirako zenbatekoa**

\*\* Gehienetan, enpresetan jasan arazitako BEZa handiagoa izan ohi da jasandako BEZa baino, eta, beraz, Ogasunean sartu behar da bien arteko aldea. Jasandako BEZa jasan ararazitakoa baino handiago balitz, dagokion zenbatekoa konturako geratzen da, gerora egingo diren likidazioetarako.

## **BESTE ZERGA BATZUK:**

EAEEn, Kontzertu Ekonomikoa dela-eta, zergak ALDUNDIEK biltzen dituzte, baina Espainian badira ekonomia erkidegoei biltzeko utzi zaizkien zerga batzuk:

- OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA: Dirua edo beste ondasun batzuk doan jasotzeagatik ordaintzen da, hildako pertsona baten oinordetzan edo bizirik dagoen baten dohaintzan jasotako ondasunengatik.
- ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA: Partikular batek ondasun bat beste partikular bati erosten dionean ordaintzen da eta dokumentu publiko inskribagarrietan (notario aurrean) eta dirua tartean dutenetan ezartzen da. Adibidez, etxebizitzetan, hipoteketan...

## 2.6. ARIKETAK

### Irakur ezazue hurrengo albistea:

Saioa Arando: "Kooperatiba eredu ona da, baina ez da bakarra"

2012-07-03 00:00:00 [Leire Kortabarria](#)

**Saioa Arando MIKeko kidea da, eta Mondragon Unibertsitateko ordezkari gisa parte hartu zuen joan den astean Oñatin bukatu ziren jardunaldi batzuetan. Ciriec taldeak MU, EHU eta Deustuko Unibertsitatearekin antolatutakoak ziren, ekonomia sozialaren gainekoak.**

**MUko Eunate Eliok esan zuen krisiak indartu egingo duela kooperatiben eredu. Zergatik?**

Begi bistakoa da krisi ekonomiko honek aldaketa batzuk ekarri behar dituela, eta, tartean, dauzkagun enpresa ereduak eraldatu beharra egongo da. Datuek erakusten dute kooperatibek etorkizun oparoa dutela testuinguru berri horretan, krisia beste **enpresa** batzuk baino askoz hobeto jasaten dutelako.

Hala, azken urteon gaineko datuak eman ditu Konfekoop-ek: iaz 100 **kooperatiba** baino gehiago sortu ziren eta aurten dagoeneko 70 bat sortu dira; enplegua hainbeste galtzen dabilen garai honetan, kooperatibek sortutako enplegua %1 handitu da azken urtean, eta **BPG**ri egindako ekarpena %10 handitu da.

**Honakoa ere esan zen: krisia ez dela bakarrik ekonomikoa, baizik eta zibilizazio osoarena.**

Krisi sozial baten ere bagaude; gaur egungo eredu sozialak hutsune handiak dauzka. Ingurumen krisia ere bada. Erantzun integrala eman behar diogu arazo potolo honi.

### **Gizarte ekonomiak krisia aprobeztatu dezake aldaketari laguntzeko?**

Krisi momentuak beti dira aldaketarako egokiak. Ekonomia sozialak erakutsi du krisi honetan beste enpresa eredu batzuk baino hobeto moldatu dela. Erronka honi aurre egin eta txanpa hartu behar da, eta erakutsi beste eredu batzuekin mundu hobea egin dezakegula. Kooperatiba eredu bat dago, gure bailaran oso ondo dabilena, baina ez du zertan bakarra izan. Guk argi ikusten dugu langileen parte-hartzea bultzatu behar dela. Parte-hartze mailak desberdinak izan daitezke. Beti izango da hobea enpresa bat non langileek erabakietan parte har dezaketen, parte hartzen ez duten enpresa baino. Zenbat eta parte-hartze maila handiagoa, orduan eta hobeto. Aldaketa integrala da, eta ez da oso erraza, baina emaitzak ematen ditu.

### **MIKek zer egin dezake krisi honi aportatzeko?**

MIKek lau ikerketa-lerro dauzka orain, eta nik hirutan oso argi ikusten dut ekarpena egon daitekeela: erantzukizun soziala duten ereduak bultzatzen dituen ikerketa-lerroak lan egiten du sortu diren enpresetan parte-hartzea edo erantzukizun soziala bultzatzen; hori da zuzenki egin dezakegun aportazio garrantzitsuena. Bestalde, **ekintzailetasun** mota bat bultzatu dezakegu; guk lan handia egiten dugu ekintzailetasun soziala bultzatzen. Eta enpresa irekiaren lerrotik, eredu berriak sortu eta gure enpresetan txertatzen ditugu: **eredu horizontalagoak**, harreman errazagoekin.

1.-) Klasean azaldu zertan datzan testua eta defini ezazue azpimarratutako hitzak.

### **BESTE ARIKETA BATZUK:**

1.-) Andresek eta Sarak 30.000 euro dute bion artean, eta hotel bat egin nahi dute, baina ez dute nahi inbertitutako baino gehiago galtzeko arriskua jasan, hori dela eta erantzukizun mugatuko sozietatea sortzea pentsatzen ari dira.

Uste duzu hori dela egitura egokiena? Ze ezaugarri dituzte enpresa mota hauek?

2.-) Jonek jatetxe bat sortu nahi du eta zalantzak ditu, enpresario indibiduala edota erantzukizun mugatuko enpresa modukoa eratzea da, lagundu iezaiozu esanez ze nolako alde onak eta txarrak dituen enpresa egitura bakoitzak.

BTX 2 – Enpresa \_\_\_\_\_ 2. unitatea: Enpresa motak \_\_\_\_\_

- 3.-) Egin ezazu mugatu sozietate eta anonimoen arteko koadro bat adieraziz ze antzerakotasun eta desberdintasun duten.
- 4.-) Adieraz itzazu zeintzuk diren akzio eta partizipazio arteko desberdintasunak.
- 5.-) Enpresaburu batek zerbitzu-enpresa bat eraiki nahi du: bidaia-agentzia bat. Hasieran eman nahi duen kapital kopurua ez da oso handia eta lortu nahi duen merkatua ere ez da oso handia. Ze enpresa mota eratzea gomendatuko zenioke? Zergatik? Azal itzazu dituen aukera guztiak.
- 6.-) Enpresa bat eratu da eta bazkideek Sozietate komandatariora akzioengatik izango dela erabaki dute. Bazkideetatik bi kolektiboak dira (Alvarez jauna eta Auzmendi jauna) eta bat bazkide komandatariora da (Bosque andrea). Ze izen jarriko zenioke sozietateari? Asmatu pare bat.
- 7.-) Zein da ezberdintasuna zergen zuzenen eta zeharkakoen artean? Definitu bakoitzetik zerga bat.
- 8.-) Enpresen sailkapenen eskema orokor bat burutu eta forma juridikoaren arabera, aipatu bakoitzak zer nolako zerga ordaintzen duen.